

Laguntzaileak

PAGOETA



PARKE NATURALA



ZARAUZKO UDALA



ZARAUZKO  
KIROL PATRONATUA



UROLA KOSTAKO hitza

Jesusa Frutak

HELMUGA KIROLAK



ARITZBATALDE  
Bar Restaurante

PAGADI  
elektzitate

TALAI · BERRI  
TRAEOLINA

Aliprox  
PORTU BERRI

URBIDE  
ITURRIAC, S.L.

azkuelek

ANDATZA  
KAPETOGIA OKINDEGIA

EROSKI  
zurekin

Lukas



PAGOETA

MENDIZALE-ELKARTEA

Zarauzko  
Iraupeneko  
IV. Ibilaldia

2014ko Apirilak 13



EU/KAL MENDIZALE  
FEDERAZIOA

Euskal Herriko Iraupen Luzeko  
Ibilaldien 13. zirkuiturako baliagarria



MENDI LASTERKETA EZ DENEZ...  
IBIL ZAITEZ OINEZ !!!

- Irteera - Amalera
- Kontrola
- Anoa gunea. Urdanetako anoa gunear, saila dago.



Ibilbide hau natur-baliabide bereziek dituzten lekutatik pasako denez arren eskatzen diegu parte-hartzaileei begirunez ibil daitezela.

# Ibilaldiaren arautegia

Pagoeta Mendizale Elkartek antolatutako ibilaldi hau mendiko ibilaldi herrikoi bat da, eta dituen helburuak dira mendizaletasuna bultzatzea eta Zarautz inguruko mendiak, txokoak eta ibilbideak erakustea, betiere natura errespetatuz.

Iraupeneko Ibilaldia 13. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitorako baliagarria da eta ibiltarien partehartzea sustatzeko asmoz, Ibilaldi Txikia, eta Ttipi-Ttapa ere antolatu dira.

## ERANTZUKIZUNAK

Zeharkaldi hauek mendi ibilaldiak dira, eta kirol jarduera horrek bereak dituen arriskuak dituzte. Pagoeta M.E.-ak ez du bere gain hartuko erantzukizunik, ibilaldian edo ibilaldiaren ondorioz ezbehar edo min hartzea gertatuko balitz.

Parte hartzaileek uko egiten diote Elkartearen kontra erreklamazioak jartzeari, edo kalteordainak eskatzeari.

Mendi jarduerak egiteko federatua egotea gomendatzen da.

Elkartek ekitaldi hau bertan behera uzteko edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

## IZEN-EMATEA

Martxoaren 17tik apirilaren 10era [www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com) web gunean. Argibide gehiago, astelehen eta osteguna 19:30etatik 20:30etara 943 132911 telefonoan.

Parte-hartzaileen kopurua: 1000 ibiltari gehienez.

## ORDAINKETA

**Iraupeneko Ibilaldia, eta Ibilaldi Txikia;** Federatuek; 10 €, federatu gabek 12 €.

**Ttipi-Ttapa Ibilaldia;** Gaztetxoa 4€ Heldua 6€.

Transferentzia egin eta hori ziurtatu ondoren emango da bakoitzari dagokion izen - emate zenbakia. Kontrol txartela jasotzeko ordainagiria erakutsi behar da.

Federatuek federatu txartela erakutsi behar dute kontrol - txartela jasotzerakoan.


Ordainketa kontu hauek baten egin behar da:

**Laboral Kutxa**  
IBAN: ES29 3035 0029 65 0290015562  
BIC: CLPEES2MXXX

**Kutxabank**  
IBAN: ES91 2095 5076 48 1065685215  
BIC: BASKES2BXXX

## ZERBITZUAK

Antolakuntzak lokal bat prestatuko du koltxonekin, bezpera gauen bertan lo egin nahi



dutenentzat. Zerbitzu hau erabili nahi dutenek, antolakuntzari jakinarazi behar dio telefonoz edo e-mailez.

## IRTEERA

Irteera eta amaiera: Zinema pilotaleku zaharrean (tren geltoki ondoan).

**Ttipi-Ttapa:** Urdanetara joateko autobusa 9:30 etan irtengo da Zarautzitik, eta 10:00etan emango da irteera Urdanetan. AURREZ EMAN BEHAR DA IZENA.

## KONTROLAK

Parte-hartzaileek ibilbide bakoitzari dagokion ibilbidea egin behar dute eta ezarritako kontrolatik igaro. Kontrol horietan martxa-txartela erakutsi behar da, zigilua jartzeko.

Bakoitzaren kontrol-txartelean adierazitako denbora tartetan egongo diren zabalik.

Orduetegi horretatik kanpora doan ibiltaria AUTOMATIKOKI KANPORATUA gelditzen da.

## BALIZAK

Ibilbidea plastikozko zinten bidez markatuta egongo da.




## HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezkoa den elikagaia ekartzea gomendatzen zaie. Antolakuntzak fruitu lehorrak, fruta, eta freskagarriak jarriko ditu.

Ibilbideko gune estrategikoetan sorospen zerbitzuak egongo dira.

## ERRETIRADA

Ibilbidean zehar erretiraten diren parte-hartzaileek antolakuntzako kideei eman behar diete txartela, edo bestela 689045321 telefono zenbakian jakinarazi. Erretiratzeko punturik egokienak Urdaneta auzoa, Iturriotz, eta Iturritan dira.



## BUKAERA

Antolakuntzak ezarritako denboren barruan dagokion ibilaldia burutu duela txartel bidez ziurtatzen duenari diploma eta oparia emango zaizkio helmugan.

## DUTXAK

Ibilaldia amaitzean du-

txatu nahi duenarentzat zabalik egongo dira Aritzatalde polikiroldegian 13:30etik 18:30era.

Hemen aipatu ez den zer baiten aurrean, antolatzaileen gain gelditzen da dagokion erabakia hartzea.